**SOPUERTAKO UDALA**

IRAGARPENA, Mercadilloko 1.2. arloan Sopuertako ordezko arauen 7. zenbakiko aldaketari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena. 5249

IRAGARPENA, udal planeamenduko ordezko arauen 8. zenbakiko aldaketari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena. 5250

**ARRIGORRIAGAKO UDALA**

IRAGARPENA, bere plantila organikoan egindako hutsak zuzentzen dituena. 5251

**BILBO HAUNDIA ESKUALDEKO UREN PARTZUERGOA HORNIDURA ETA OSASUNBIDEA**

IRAGARPENA, «Trapagaran eta Ortuellako Industri Egitasmo Partzialaren arteko tarteunea hartzen duen Granadako Tartekagailuko 1 zk.dun Obra Osagarria» deritzo Proiektuak hartzen dituen ondasunen okupazioaren Aurreko Aktak egiteko deialdia jakinarazteko dena. 5252

IRAGARPENA, «Castañoseko Kolektorearen Trazaketarako Proiektua -II. Fasea-» deritzonak hartzen dituen ondasunen okupazioaren Aurreko Aktak egiteko deialdia jakinarazteko dena. 5255

**AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de Modificación n.º 7 de las Normas Subsidiarias de Sopuerta en el Área 1.2- Mercadillo. 5249

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación n.º 8 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal. 5250

**AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA**

ANUNCIO por el que se corrigen errores en la Plantilla Orgánica. 5251

**CONSORCIO DE AGUAS ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO DE LA COMARCA DEL GRAN BILBAO**

ANUNCIO de Convocatoria de Actas Previas a la Ocupación del Proyecto «Obras Complementarias n.º. 1 del Interceptor del Granada, tramo: Trapagaran-Plan Parcial Industrial de Ortuella». 5252

ANUNCIO de convocatoria de Actas Previas a la Ocupación del «Proyecto de Trazado del Colector del Castaños. II Fase». 5255

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 1908

251/1995 DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, Zerbitzu Nagusietako Kontratazio eta Homologazio Mahaiaren eta Informatikako Ondasun eta Zerbitzuen Kontratazio Mahaiaren antolaera aldatzeko dena.

Administrazioak behar-beharrezkoa du koherentzia eta arintasuna, eta horretarako komenigarria da funtsezko eskuduntzak eta bere zerbitzupean dauden baliabideak zuzendaritza organiko berean egotea. Horregatik, egokiagoa jo da Informatikako Ondasun eta Zerbitzuen Kontratazio Mahaia, hasieran Administrazio eta Zerbitzu Sailordetzara atxikirik zegoena, Funtzio Publikoaren Sailordetzari atxikitzea, organo horrek baititu hainbat sailetako eskuduntzak arlo horretan.

Aldaketa hori aprobetxatuz, mahai horri ez ezik, Zerbitzu Nagusietako Kontratazio eta Homologazio Mahaiari ere beste antolaera bat eman nahi zaio. Izan ere, mahai horien egitura organikoak aldatuz joan dira, sailen organigramak aldatzearen ondorioz.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 1908

DECRETO 251/1995, de 25 de abril, por el que se realizan diversas modificaciones organizativas en la Mesa de Contratación y Homologación para los Servicios Centrales y en la Mesa de Contratación de Bienes y Servicios Informáticos.

La precisa coherencia y agilidad administrativa aconseja residenciar las competencias sustantivas y los medios auxiliares a su servicio bajo la misma dirección orgánica. Así, se estima más razonable que la Mesa de Contratación de Bienes y Servicios Informáticos, que inicialmente quedó adscrita a la Viceconsejería de Administración y Servicios, dependa de la Viceconsejería de Función Pública, órgano que alberga las competencias multidepartamentales en la materia.

Aprovechando esta modificación, interesa reorganizar tanto la Mesa citada como la Mesa de Contratación y Homologación para los Servicios Centrales, cuyas estructuras orgánicas han sufrido sucesivas alteraciones motivadas por los cambiantes organigramas departamentales.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko apirilaren 25ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Informatikako Ondasun eta Zerbitzuen Kontratazio Mahaiaren atxikitzea.

1. Informatikako Ondasun eta Zerbitzuen Kontratazio Mahaia, apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuaz arautua, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikirik geratzen da Funtzio Publikoaren Sailordetzaren bidez. Sailordetza horrek egin beharko ditu ondasun eta zerbitzuak erosi, alokatu eta zaintzeari buruzko baldintza teknikoen plegua eta esleipen–informeak. Ondasun eta zerbitzuok apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuan aipatzen direnak izango dira, bai eta hainbat sailetakoak direnak, nahiz halakoak bailiran definitu direnak.

*2. atala.*– Zerbitzu Nagusietako Kontratazio eta Homologazio Mahaia.

Ondasunak homologatzeko eta zentralizatuta erosteko prozedura zehazteko eta kontratazio mahai bat sortzeko zen, eta ekainaren 3ko 134/1986 Dekretuaz aldatu zen urriaren 24ko 230/1983 Dekretuaren seigarren atala honela geratuko da:

«1. Mahaiaren osaera hau izango da:

a) lehendakari, Baliabide Orokorren zuzendaria.

b) Bi bokal, Baliabide Orokorren Zuzendaritza ordezkatuz, kontratazio organoak izendatuak.

c) Bokal bat, Ekonomi Kontrolerako Bulegoa ordezkatuz, bere zuzendariak izendatua.

d) Bokal bat, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuari atxikitako teknikaria. Lehendakariorde izango da eta bere zuzendariak aukeratuko du.

e) Idazkaria, Kontratazio Organoak izendatua. Hitzerako eskubidea edukiko du, baina ez botua ematekoa.

*3. atala.*– Ondasunak homologatzeko eta zentralizatuta erosteko prozedura zehazteko eta kontratazio mahai bat sortzeko zen, eta ekainaren 3ko 134/1986 Dekretuaz aldatu zen urriaren 24ko 230/1983 Dekretuaren zazpigarren atala honela geratuko da:

«1. Kontratazio Organoa Administrazio eta Zerbitzu sailburuordea izango da mahai honek izapidetzen dituen espediente guztietan.

2. Mahaiko lehendakariak eman eta formalizatuko ditu kontratuak, eta ez baldin badago, kargua hutsik badago edota hark ezin badu, lehendakariordeak ordezkatuko du.»

*4. atala.*– Informatikako Ondasun eta Zerbitzuen Kontratazio Mahaia.

Autonomi Elkarteko Administrazio Orokor eta Instituzionalerako informatikako ondasun eta zerbitzuak

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 25 de abril de 1995

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Adscripción de la Mesa de Contratación de Bienes y Servicios Informáticos.

1. La Mesa de Contratación de Bienes y Servicios Informáticos, regulada por el Decreto 77/1983, de 11 de abril, queda adscrita al Departamento de Hacienda y Administración Pública a través de la Viceconsejería de Función Pública, correspondiendo a ésta elaborar los pliegos de condiciones técnicas y los informes de adjudicación correspondientes a la adquisición, arrendamiento y mantenimiento de los bienes y servicios informáticos a que hace referencia el Decreto 77/1983, de 11 de abril y, en cualquier caso, a los que tengan carácter multidepartamental o se hayan definido como tales.

*Artículo 2.*– Mesa de Contratación y Homologación para los Servicios Centrales.

El artículo sexto del Decreto 230/1983, de 24 de octubre, por el que se define el procedimiento de homologación y adquisición centralizada de bienes y se crea una Mesa de contratación, modificado por Decreto 134/1986, de 3 de junio, queda redactado como sigue:

«1. La composición de la Mesa será la siguiente:

a) Presidente, el Director de Recursos Generales.

b) Dos vocales, representantes de la Dirección de Recursos Generales, nombrados por el Órgano de Contratación.

c) Un vocal, representante de la Oficina de Control Económico, nombrado por su Director.

d) Un vocal, Técnico adscrito al Servicio de Contratación de la Dirección de Patrimonio y Contratación, nombrado por su Director, que actuará como Vicepresidente.

e) Un Secretario, nombrado por el Órgano de Contratación, que actuará con voz pero sin voto.»

*Artículo 3.*– El artículo séptimo del Decreto 230/1983, de 24 de octubre, por el que se define el procedimiento de homologación y adquisición centralizada de bienes y se crea una Mesa de Contratación, modificado por Decreto 134/1986, de 3 de junio, queda redactado como sigue:

«1. El Órgano de Contratación, en todos los expedientes tramitados por esta Mesa, será el Viceconsejero de Administración y Servicios.

2. El otorgamiento y formalización de los contratos se realizará por el Presidente de la Mesa, quien en caso de ausencia, vacante o imposibilidad, será sustituido por el Vicepresidente.»

*Artículo 4.*– Mesa de Contratación de Bienes y Servicios Informáticos.

El artículo sexto del Decreto 77/1983, de 11 de abril, por el que se fija el procedimiento de adquisición

erosteko ihardunbidea finkatzeko zen apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuaren seigarren atala honela geratuko da:

«1. Kontratazio Mahai berezi bat sortzen da, dekretu honetan jaskotako ondasun eta zerbitzuentzat. Hau izango da bere osaera:

a) lehendakari: Funtzio Publikoaren Sailordetzako ordezkari bat, Kontratazio Organoak izendatua.

b) Bi bokal, Funtzio Publikoaren Sailordetza ordezkatuz, Kontratazio Organoak izendatuak.

c) Bokal bat, Ekonomi Kontrolerako Bulegoa ordezkatuz, bere zuzendariak izendatua.

d) Bokal bat, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuari atxikitako teknikaria. Lehendakariorde izango da eta bere zuzendariak aukeratuko du.

e) Idazkaria, Kontratazio Organoak izendatua. Hitzerako eskubidea edukiko du, baina ez botua ematekoa.

2. Kontratazioak eragina sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakar batean baldin badu, sailak edota erakunde hori menpe dagoeneko sailak bokal bat izendatu ahal izango du ordezkotza egin diezaion.

3. Kontratazio Organoa Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren sailburuordea izango da mahai honek izapidetzen dituen espediente guztietan.

4. Mahaiko lehendakariak eman eta formalizatuko ditu kontratuak eta ez baldin badago, kargua hutsik badago edota hark ezin badu, lehendakariordeak ordezkatuko du.»

INDARGABETZE XEDAPENA

Ekainaren 3ko 134/1986 Dekretua indargabetuta gelditzen da, bai eta, maila berekoak edo apalagokoak izanda, dekretu honetan agindutakoaren aurkakoak diren xedapenak ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko apirilak 25.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

de bienes y servicios informáticos para la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma, queda redactado como sigue:

«1. Se crea una mesa de contratación específica para los bienes y servicios incluidos en este Decreto, cuya composición será la siguiente:

a) Presidente, un representante de la Viceconsejería de Función Pública nombrado por el Órgano de Contratación.

b) Dos vocales, representantes de la Viceconsejería de Función Pública, nombrados por el Órgano de Contratación.

c) Un vocal, representante de la Oficina de Control Económico, nombrado por su Director.

d) Un vocal, Técnico adscrito al Servicio de Contratación de la Dirección de Patrimonio y Contratación, nombrado por su Director, que actuará como Vicepresidente.

e) Un Secretario, nombrado por el Órgano de Contratación, que actuará con voz pero sin voto.

2. Cuando el objeto de la contratación afecte a un solo Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de derecho privado, aquél o el Departamento tutelante del Organismo o Ente podrá designar un vocal que le represente.

3. El Órgano de Contratación, en todos los expedientes tramitados por esta Mesa, será el Viceconsejero de Función Pública del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

4. El otorgamiento y formalización de los contratos se realizará por el Presidente de la Mesa, quien en caso de ausencia, vacante o imposibilidad, será sustituido por el Vicepresidente.»

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 134/1986, de 3 de junio, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.